



Ana Elosegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Denok dugun maskara...

Badatoz inauteriak, tolosarrak honezkero ari-
tuko dira moztarok sortzen, egiten, josten
... karrozen apainketa eta ideien jarioa. Eus-
kal Herrian inauteriak ederrak izaten dira. Na-
farrak aurrenak dira horiek ospatzen, beraien
ohitura bitxi eta ederrekin. Lantz, Ituren,
Erratzu. Izaba eta Altsasu...

Azpeitian ere modu bitxian ospatzen ditugu Elegante Egunak; hasiera eman eta giro ederra izaten da herrian. Batzuentzat sakratuak izaten dira inauteriak. Sokamuturra, astearte goizeko diana... Denok gazte izan gineneko oroitzapen bikainak.

Inauteriak kuriosoak dira izatez; zenbat mutil janzten diren neskaz eta askorentzat aukera bikaina da beraien maskara soziala apur bat behintzat bigundu eta kentzeko, zoramena-ri lekua uzteko.

Jaio eta nerabazarora bitartean denok eraikitzen omen dugu geure maskara. Adituek diote lagungarria zaigula zenbaitetan harremanak, lan edo bikote harremanak, mantentzeko. Maskara soziala ere deitzen diote; batzuek lotsatiarena, besteek biktimarena eta beste batzuek lotsagabearena... Baina denok omen dugu, ustez, babesten gaituen maskara.

Haurrek ere ikasten dute hori jartzen, eta guk terapeutok askotan maskara hori, tarteka bederen, kenarazten edo aldarazten saiatzen gara, baldin eta pertsonari kalte egiten badio.

Inauterietan dena libre omen da, eraso sexualak eta sexistak izan ezik, noski! Libre, gu li-

bre izateko, alajaina. Horregatik, gizonak emakumez janzten dira gogoz, eta gozatu ederra hartzen dute beste mutil batzuei ipurdia ukitzen eta beste mutil batzuekin ligatzen...

Lotsatia otsoz janzen da eta beste guztiak beldurtzeko papera hartuko du gau batez, egunerokoan dituen beldur-
rak, tarte txiki batean bederen, etxean utziz.

Gure lan espektatibak, gaztaroan utzitakoak... azalera-tzen dira. Hara hor, medikuz janzteko ohitura edota poli-ziaz, futbolariz edo pitonisaz... frustrazioak egia bihurtuz!

Zein ederrak izaten diren inauteriak, usaia, giroa, algarak eta musika bandak... Nire niak izan nahi zuen hura egia bihur daiteke, gauzez edo egunez.

Maskara, Veneziako maskarak, inork ezagutuko ez nauen gaua... Ni aurten Doraemonez jantziko naiz; Maddalena Arzallusek azaroaren 27an Irungo agurrean abestutako bertsoa ikasi eta Puigdemont piloa topatzeko aukera izango dudanez, hauxe abestuko dut:

«Katalunian egun on
 Eta Belgikan gabon
 Bruselako leihoan
 Bost mamu eta Puig-
 demont
 Ze pozik bizi diren
 Amets batetik bestera
 Ezker eta eskuineko-
 kin batera Carles Puig-
 demont
 Magoa ere bada
 Bai, egia da hori!
 Gora eta gora beti
 Carles Puigdemont
 Tron ponpon
 Gurea bukatu da ta
 Hor konpon
 Tron pon pon
 Zorte on denoi Mau-
 len eta Durangon!» •



Hasi dira inauteriak Malerrekan.

Ivan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS